

Olakosaroi / Enirio / Oiduegi zirkularra



P. Aparkalekua. Zaldibiako Olakosaroi atsedenekuko aparkalekuan utziko dugu autoa.



1. Hasiera puntua. Aparkalekuan bertan emango diogu hasiera ibilbideari, kanadiar pasabide batean margotutako GR 35, GR 283 eta PR-Gi 2004 bideei jarraituz.



2. CAFeko deposituak. Kilometro bat inguruz hormigoizko pistan joanda, CAFeko garai bateko deposituetara iristen da. Handik abiatzen da Enirioko galtzada.



3. Gaintzolako iturria. Galtzada hartu eta bost minutuan dago iturria. Uda partean emari txikia du.



4. Galtzadan bidegurutzeta. Aitzartetik denbora gutxira, bidegurutze batera iritsiko gara. Ezker aldera hartuz gero, AUSA-Gaztelu mendira eta Larraitz aldera joaten da -itzuleran bide hori erabiliko dugu-, baina guk galtzadari jarraituko diogu goraka.



5. Urruztieder sarroia. Galtzadan aurrera goazela, Urruztieder sarroira iritsiko gara (herri hizkeran, Urruztiarre). Txabolak eskubitara utziz, galtzadan jarraituko dugu.



6. Iturtxoko iturria. Ezkitik bost minutura, Iturtxoko iturriarekin egingo dugu topo. Ez du txorrotik, eta zulotik hartu beharra dago ura.



7. Arrantsaroko sarroia. Pikoetarako igoyeraren bukaeran dago, hainbat artzain txabolaz eta pagoz osatuta. Zaldibiako lurretan daude, Enirio-Aralarko mankomunitatean sartu aurreko azkenak.



8. Pikoeta gaina-Esnaurreta sarroia. Zaldibiako herri lurren eta Enirio-Aralar mankomunitateko lurren arteko muga -mugarria bistan dago-. Eskubian, kaskoan, Mendibilgo sarroia zaharra dago, eta haren barrenean Esnaurretako sarroia. Bide nagusia utzi, eta Ondarre paraje aldera hartuko dugu, eskubitara sumatzen den xendari jarraituz.



9. Ondarreko hondakin arkeologikoak. Ondarre III eta Ondarre II hondakin arkeologikoak aurkituko ditugu: zista bateta mairubaratz bat. Paraje ordekatsu eta urtsua da, batez ere euri garaietan.



10. Aerodromo zaharrekoko pista. Ondarreko parajea zeharkatu eta Errekabeltzetik Eniriora doan pistarekin topo egingo dugu. Ezkerretara gora egin beharra dago, bere egunean aerodromo bat jartzeko proiektua egon zen gaintxo oranzko modura hartuz.



11. Enirioko sarroia. Enirioko saroi ezaguna, ibilbideko punturik gorenenetakoa (870 m.). Mankomunitateari izena ematen dio parajea da, eta hainbat bideren bateragunea. Igaratzara hortik aurrera segiz iristen da, orain gutxi zabaldutako autoentzako pista jarraituz.



12. Jentiliturri iturria. Igaratzako noranzkoari bizkarra emanez, GR-35ari heldu, Jentiliturri iturria dago topatuko dugu pago baten oinean, ganaduaz babesteko itxitura baten barruan.



13. Oiduegiko (Oidui) sarroia. Sarroia hainbat txabolaz osatuta dago, baina ezagunena Zaldibiako Gailurrerantz mendi elkarteak kudeatzen duena da. Oiduko txabolak (845 m.) edozein mendizalarentzat irekia den aterpea du.



14. Jentilarriko trikuharria. Aralarren ikurretako bat. Joxemiel Barandiaranek industu zuen aurrenekotako bat da.



15. Bidegurutzeta. Pikoeta gainean gaude atzera. GRa utzi, eta PR-Gi 2009 bidea hartu beharra dago eskubi aldera. Mandabide izeneko bidezidorretik AUSA-Gaztelu mendi aldera egiten du bide horrek.



16. Hesia Ausokoi trikuharritik gertu. Ezkerrean sumatu dugun itxitura gainaldean dagoen zidorretik jarraitu behar da Ausokoiko trikuharri aldera. Ausokoiko ibilbideko punturik garaiena da (894 m.). Jaitsiera sigi-sagatsuan Errekontara iristen da.



17. Bidegurutzeta Almitzeta aldera. AUSA-Gaztelu mendiaren lepoan, eskubi aldera eginez Errekontako iturrira jo daiteke, eta ezker aldera eginez Almitzeta aldera jotzeko bidegurutzeta. GR eta PR arrastoak ikusiko ditugu elorri baten enborrean.



18. Enirioko galtzadan berriz ere. Atzera galtzadara iritsita, hari beherantz jarraitu, Olakosaroi atsedenguneraino.



1. Amaiera puntua. Olakosaroi atsedenekuko aparkalekuan.




ARTZAIN SARROIAK

Hasi Urruztiederren, gero Arrantsao, gorago Esnaurreta eta Mendibil, ibilbidearen goiko muturrean Enirio, eta beherakoan Oiduegi eta Intsentsao. Kilometro eta denbora tarte laburrean dozena erditik artzain saroi zeharkatzen ditu ibilbide honek, artzaintzak paraje honetan duen garrantziaren erakusgarri.



MONUMENTU MEGALITIKOAK

Ondarreko zista eta mairubaratzea, Jentilarriko trikuharria eta Ausokoikoa dira ibilbide honetan bertatik bertara ikus daitezkeenak, baina inguruetan badira gehiago, horietako batzuk Oiduegi inguruan. Gaia gustuko izanez gero, merezi du Aralarko monumentu megalitikoaren gida esku artean izatea.



AUSAKO GAZTELUA

Ibilbide hau Gaztelu, AUSA-Gaztelu edo Ausoko-Gaztelu izenez ezagutzen den mendiaren tontorrera igotzen ez bada ere -badago horretarako aukera hala ere-, aipamena merezi duen gaina da. Nafarroa erreinuak gotorleku bat eraiki zuen XI. mendean, ganaduen eta pertsonen joan-etorriak zaintzeko. Gailurretik gertu, zulo bat ere badago, eta, elezaharrak dioenez, jentilen bizileku ere izan zen; Jentil Zulo edo Jentilen Labea izenez ezaguna.